



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Astelehena
2009-03-02**

VIIURTEA 1.643.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

EAJ GAIENDU DA GUREAN

TOLOSALDEA EAJ izan da alderdi bozkatuena eta D3M izan da bigarren indarra, biek ere bozkak galdu dituzte

IGOERA Aralarrek bere bozka kopurua bikoiztu du; PSE-EE mantendu egin da eta EA, PP eta EB jaitsi egin dira 2-3-4-5

ESKUALDEKO EMAITZAK

EAJ ▶ 8.198 boto (2005ean 10.952, EArekin).

PSE-EE ▶ 2.982 boto (+ 541).

EA ▶ 1.167 boto (05ean 10.952, EAJrekin).

PP ▶ 1.047 boto (- 692).

Aralar ▶ 2.387 boto (+ 1.179).

EB ▶ 526 boto (-597).

D3M ▶ 4.784 boto (EHAK-k 05ean 7.145).

UPD ▶ 100 boto (05ean ez zegoen).



EAE-KO EMAITZAK

EA - 4396.557 boto; 30 legebiltzarkide (+ 8).

PSE-EE ▶ 315.893 boto; 24 legebiltzarkide (+ 6).

EA ▶ 37.820 boto; 2 legebiltzarkide (-5).

PP ▶ 144.944 boto; 13 legebiltzarkide (- 2).

Aralar ▶ 62.214 boto; 4 legebiltzarkide (+ 3).

EB ▶ 36.134 boto; 1 legebiltzarkide (- 2).

UPD ▶ 22.002 boto; 1 legebiltzarkide (05ean ez zegoen).

D3M ▶ 100.924 boto; 7 legebiltzarkide izango lituzke (05ean EHAK-k 9).



Villabonako Olaederra kiroldegian ilara luzeak sortu ziren bozka emateko. N. LATABURU



Tolosan normaltasunez igaro zen hauteskunde eguna. I. GARCIA

Ertzaintzak Manex Castro atxilotu du etakide delakoan

VILLABONA Auzitegi Nazionalarekin koordinatu da operazioa; ezker abertzaleak atxiloteta salatu du 6


ERREDAKZIOA

Normaltasuna izan da nagusi EAeko legebiltzarreko hauteskunde egunean, zenbait aldarrikapenekin batera. Orokorrean Ertzaintzak zein Tolosako Udaltzaingoa «arazorik ez» zela izan azaldu zuten. Jazotako sabotaje bakarra Ibarren izan zen, Ibaigain kaleko hauteslekuan. Sarreransilikonajarrira zegoen eta indarrez ireki behar izan zuten hautesleku barrura sartzeko.

Goizean goizetik joan ziren botoemaileak hauteslekuetara; goiztiarrenak adinekoak eta mendira bueltaxka ematera joateko asmoa zutenak. Eguerdira aldera errodaren %25ak inguru bozkatu zuten. Bazkalarreko tartean ere, ohi denez, jende gehiago animatu zen botoa ematera. Aipatzekoa da Villabonan ilara luzeak zeudela eguerdi aldera.

Anekdotak koloretuena Inauterietan lotuta izan zen. Izan ere, atzo Piñata Igandea izan zen eta egun horretan parte hartzen zuten Poca-Tripa eta Txilaba elkarteko zenbait kide mozorrotuta joan ziren botoa ematera.

«Demokrazia eza» salatu dute

Aldarrikapenerako tartea ere izan zen hauteskunde egunean. Anoetan hainbat gazte independentistek ekimena burutu zuten. Herriko 30 gazte elkarrekin joan ziren «independentziaren aldeko aldarria eginez» bozka ematera. Ekimen horrekin «Euskal Herriak bizi duen demokrazia eza» salatu nahi izan zuten eta «gazteon etorkizuna independentzia dela» aldarrikatu.

Bestalde, bozak hartzeko kabinetan zenbait mugimendu izan ziren. Hala, Villabonan, esaterako, D3Mko bozak kabinetan sartu izan zituzten eta ondoren hautesleketan zeuden ikuskatzaile batzuk bertatik kendu egin zituzten. Ondorioz, eskualde guztian aukera hau bozkatu nahi zutenen artean paperik gabe geratu zenik ere izan zen. Kalean saiatu ziren hauek lortzen.

Aipatzekoa da ere Ertzaintzaren presentzia nabarmena izan zela Villabonan. Hauteskunde eguna baino, arrazoia Ertzaintzak berak larunbatetik igandera bitarteko gauean egindako Manex Castoren atxiloketa dela-eta izan zen.

Oro har normaltasuna nagusitu da eskualdean. Gertakari bakarra Ibarren hautesleku batean silikona jarri dutela izan da. Bestalde, Anoetan gazte independentistek aldarrikapena egin dute.

Espero bezala joan da eguna



Ezker-eskuin eta goitik behera: Anoetan gazte independentistek aldarrikapena egiten; Ibarren sabotajea egin zuten Ibaigain hauteslekuan, silikonarekin; Albiztur eta Irurako hautesmahaiak eta Tolosako Amarotz auzo elkartea eta haurtzaindegia. HITZA/AL/EE/NL/RC/IG.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Eszerrean, Batzokiko giro ona. Eskuinean, EAko Elkartetxean, berriz, giroa bestelakoa zen, ez ziren horren alai, bozken kontakteta egin bitartean. REBEKA CALVO

Oso bestelako iritzia, zalantzez betetako egunaren harira

Erreakzioak Tolosaldeko alderdietako ordezkariak jarrera oso desberdinak hartu zituzten egun bera baloratzeko garaian.

ERREDAKZIOA

Egun luzea izan zen atzokoa, 08:00etan hautesleak ireki zituztenetik orduak eman zituzten alderdi ezberdinetako kideek kalkulak eta aukerak aztertzen. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA erredakzioa itxi baino apur bat lehenago Tolosaldeko EAJ, EA eta ezker abertzalearen egoitza nagusietan izan zen bertako giroa jasotzeko. EAJren Batzokian afaria egin zuten, ikusitako emaitzekin «pozik» agertuz. EAko elkartetxean, aldiz, giro pelagoa zegoen, emaitza definitiboan zain zeudela. Ezker abertzaleko Herrikoan lan eta lan ari ziren euren botoak zenbatu nahian.

Bestetik, alderdi nagusien hauteskundeetako balantzeak ere bildu zituen, aurpegi alaiak eta ez horren alaiak ikusiz. Gaur, alderdietako batzarrak egin eta gero, egingo dute balantze osatuago bat.

BAKARTXO TEJERIA (EAJ)

«Asko igo gara, nahiz eta bakarrik joan zazpi aulki gehiago lortu ditugu». «Emaitza ona lortu dugu, baina oraingo ez-elkarrizketa hau egitean oraindik ere ez zeuden emaitza definitiboak ikusi daitekeen arabera badirudi espainolak elkartzen badira gehiago osoa lortuko dutela, hau ikusi beharko da oraindik, hala ere. Guk emaitza onak lortu ditugu, hori bai, guk bai- no gehiago inork ez du lortu,

gehiagoa gara. Baina beraiek elkartzen badira... Hausnarketa egin beharko dugu eta ikusi zer egin. Parte-hartzearen inguruan esan behar dugu argi dagoela ez dela 2001eko parte-hartzea izan, baina txarra ere ez dela izan».

ANTTON AGIRREZABALA (Aralar)

«Oso emaitza positiboa da; orain lana egin beharra dago». «Batez ere Tolosako emaitzarekin nago, izan ere, bikoiztu egin ditugu. Oso positiboa eta oso ona da gertatu dena guretzat, baina horrek esan nahi du lana egin behar dela. Eskerrak eman nahi dizkiet batez ere Tolosan bozka eman digutenei. Ia bost eserleku eskuratzekotan egon gara baina tira, oso pozik egoteko arrazoiak ditugu».

OSCAR RENEDO (PSE-EE)

«Izugarriko hazkundera izan dugu». «Oso balantze ona egin dugu, izugarriko hazkundera izan dugu, ikusgarria. Zortzi eserleku gehiago izango ditugu. Beti esan dugun bezala, jendeak aldaketa nahi zuen, eta bide hori hasi da. Patxi Lopez lehendakaria izatea nahi dugu. Itxaron beharko da, baina emaitzak oso onak dira. Tolosari dagokionez emaitza oso ona izan da, bigarren indarra gara, bozka nuloen aurretik. Horrek esan nahi du PSE-EE indartzen ari dela».

MANUEL MICHELENA (PP)

«Gipuzkoan orain arte genituen hiru aulkiak gorde ditugu». «Hauteskundeak baino lehen egindako inkestak ikusita pozik gaude, izan ere Gipuzkoan genituen hiru aulkiak gorde ditugu, nahiz eta Bizkaian eta Araban bana galdu ditugu. Emaitza ez da horren zaila

izan, baina hobetzea gustatuko litzaioguke, noski. Badirudi EAJren eta PSEren arteko polarizazioa izan dela nagusi. Oso kanpaina lauak egin dituzte, honek esan nahi duena da ez zutela inor beldurtu nahi. Etorkizuna hasiera batean aurreikusitakoa baino ilunago ikusten dut orain. Arazoa da, hasieratik Antonio Basagoiti esandakoaren haritik, oraindik ere ez dakigula Patxi Lopezek zer egingo duen, zein politika egingo duen. PSE ez du proposamenik egin; ez krisiaren inguruan eta ezta askatasunaren inguruan ere. Izan ere, zer egingo luke Lopezek lehendakari izango bazen terrorismoaren kontra? zein da Ertzaintzaren papera borroka honetan? zehaztugabeko puntu asko daude oraindik».

ONINTZA LASA (EA)

«Lehenik eta behin, zorionak

eman irabazi duenari». «Lehen balorazio bat egiteko esan beharra dugu galera nabarmena izan dugula. Emaitza txarrak izan ditugu. Guk alderdi bezala apustu garbia egin genuen herri ikuspegi batetik, gure ustez, herri honetan ezinbestekoa delako. Baina badirudi jendeak ez duela ulertu. Guk bakarrik egin dugu apostu hori, herri bezala aurrera pausoa ematearena, baina ez dute ulertu. Bihar -gaur- batzarrak dugu eta bertan erabakiko dugu zein aurrera pauso eman».

Ezker Batuaren hitzak

«Jasotako emaitzekin kezkatuta gaude». «Alderdi bezala, kezka hartzen ditugu emaitzak, eta kezka dugu, gizartearen eta klase politikoaren artean dibortzioa dagoelako. Legebiltzarrerako hauteskundeetako parte-hartzeak behera egin du berriz ere».



Herrikoan, lanean ari ziren ezker abertzalekoak herriz herriko bozkek zenbatzen. R. CALVO

JUAN MANUEL ERASUN (ezker abertzalea)

«Hauteskunde hauek erabat antidemokratikoak izan dira».

«Argi eta garbi dago hauteskunde hauek ez direla demokratikoak izan, guk ez dugu izan kanpaina behar bezala egiteko modurik izan; legez kanpo uzteaz gain, atxilotak ere hartu behar ditugu kontuan, eguneroko jarraipena... Gure ustez, Frankismoaren diktaduraren bigarren zatia jarri dute praktikan, bai PSOE eta bai EAJ alderdiak ere. Oraindik ez dakigu zehatz mehatz zenbat bozka jaso ditugun guztira -atzo-, baina asko izan dira eta lehenik eta behin eskerrak eman behar ditugu milaka eta milaka herritarrek bozkatu dutelako, jarri dizkiguten oztopo guztiei aurre eginez. Milaka pertsonak hauteskunde hauetan egin dutena desobediencia zibilaren adibide praktikoa izan da eta horregatik eman behar ditugu eskerrak jendearen borondate eta ausardiarekin aurrerapausoa eman dutelako. Ezin duguna da bakarrik datuei begira jarri, datu horiek oso baldintzatuta daudelako».



EAJ alderdi bozkatuena eta D3M bigarren, biek ere bozkek galduz

Eskualdeko emaitzak

Aralarrek bozkek bikoiztu ditu, igoyerarik handiena izanik; EB, EA eta PP nabarmen jaitsi dira.

» EMAITZAK, HERRIZ HERRI

Herria	EAJ		PSE-EE		D3M		EHAK		EA		PP		Aralar		EB		UPyD	Besteak		Abst (%)	
	09	05	09	05	09	05	09	05	09	05	09	05	09	05	09	05		09	05	09	05
Abaltzisketa	65	95	0	1	37	54	8	95	1	2	18	5	6	7	0	-	0	42,5	28,8		
Aduna	59	89	5	3	74	113	11	89	2	0	36	21	5	5	0	-	0	37,7	21,6		
Albiztur	85	129	10	3	10	28	10	129	1	2	22	9	0	2	0	6	0	43,5	29,7		
Alegia	339	473	71	59	209	290	55	473	26	46	110	54	19	25	0	-	0	40,8	29,7		
Alkiza	95	117	0	2	19	41	3	117	0	1	33	5	3	8	1	-	0	42,6	25,1		
Altzo	66	91	4	1	61	96	9	91	1	4	33	17	0	3	0	-	1	41,0	24,2		
Amezketza	199	276	6	5	124	209	38	276	9	21	60	34	8	20	0	-	1	40,7	30		
Anoeta	282	397	127	92	268	347	46	397	47	66	93	45	19	40	1	-	0	36,3	29,4		
Asteasu	228	369	24	23	180	250	103	369	14	21	70	36	16	33	0	-	0	42,9	33,3		
Baliarrain	19	16	0	1	29	37	1	16	0	0	5	3	0	2	0	-	0	36,8	30,5		
Belauntza	54	68	9	3	31	69	5	68	3	7	16	25	1	2	1	-	0	50	30,2		
Berastegi	278	357	17	12	92	149	42	357	5	6	58	25	8	9	0	-	1	37,6	29,2		
Berrobi	120	162	25	13	65	101	5	162	9	21	30	10	16	5	2	-	0	40,7	30,2		
Bidegoian	99	163	6	1	43	83	31	163	8	8	27	5	1	2	0	-	2	42,1	26,9		
Elduain	48	63	3	1	55	61	5	63	0	2	8	1	2	0	0	-	0	34,5	26,8		
Gaztelu	36	58	3	0	39	49	1	58	1	0	12	0	0	0	0	-	0	32,8	14,1		
Hernialde	73	79	6	6	29	60	8	79	3	5	17	17	4	8	2	-	0	47,2	32,8		
Ibarra	657	914	401	370	454	704	108	914	98	174	214	106	49	118	10	32	0	41,8	33		
Ikaztegieta	91	108	12	9	84	92	3	108	4	6	21	12	2	11	0	-	0	37,1	24,6		
Irura	273	290	83	48	142	186	36	290	22	36	80	38	10	17	2	-	0	39,4	28,5		
Larraul	33	44	7	1	34	35	6	44	0	1	15	2	2	4	0	-	0	44,1	32,8		
Leaburu	80	89	2	4	93	132	5	89	3	7	14	16	0	4	0	-	2	36,1	17,6		
Lizartza	88	125	3	4	205	230	7	125	4	8	22	14	2	3	0	-	3	30,7	24,5		
Orendain	39	58	0	0	38	43	9	58	0	0	14	6	1	1	0	-	0	33,1	22,7		
Orexa	5	6	0	0	69	64	0	6	0	0	1	1	0	0	0	4	2	15,7	1,3		
Tolosa	3.457	4.447	1.439	1.169	1.364	2.309	457	4.447	577	906	972	503	259	580	49	107	3	39,4	31,4		
Villabona	888	1.300	452	402	628	893	102	1.300	150	267	275	141	60	150	24	51	2	41,63	31,1		
Zizurkil	442	569	267	207	308	420	53	569	59	122	111	57	33	64	8	15	1	41	35,4		
GUZTIRA	8.198	10.952	2.982	2.441	4.784	7.145	1.167	10.952	1.047	1.739	2.387	1.208	526	1.123	100	211	18	38,97	30,8		

1 EAJ eta EA elkarrekin aurkeztu ziren 2005ean, eta biek elkarrekin lortutako bozkek daude zenbatuta duela lau urteko emaitzan. 2 EHAK alderdia legez kanpo utzi dute aurten; D3Mren zerrenda ere baliogabetu dute; eurek emandako datuak hartu dira kontuan

I. TERRADILLOS/N. LATABURU

EAJ izan da alderdirik bozkatuena eskualdean legebiltzarrerako hauteskundeetan. 8.198 bozka lortu ditu, 2005eko hauteskundeetan baino 2.754 bozka gutxiago. Kontuan izan behar da azken hauteskundeetan EAJ EArekin koalizioan aurkeztu zela. Azken hauen bozka kopuruak nabarmen egin du behera, 1.167 bozkekin geratu direlarik.


Bigarren indarra eskualdean D3M izan da. Eurek emandako datuen arabera 4.784 bozka jaso ditu. Gogoratu behar da ezin bozkek baliogabetu dituztela. EHAKk 2005ean lortu zituen 7.145 bozkekin alderatuz, 2.361 bozka gutxiago izan ditu. Jaitsiera nabarmena izan da, beraz.

PSE-EE mantendu egin da eskualdean

Aralar alderdiak duela 4 urte baino bozka kopuru gehiago jaso ditu, proportzioan iguera handiena berearantz izan da. 1.208 bozka jaso zituen eta aurten berriz, 2.387, hain zuzen ere 1.179 bozka gehiago, kopuru bikoiztuak.

PSE-EEren kasuan ere, iguera txiki bat izan du alderdiak eskualdean, baina EAEn baino txikiagoa; 543 bozka gehiago jaso ditu.

» ESKUALDE MAILAN




PP, EA eta EB, behera

Txanponaren beste aurpegian PP, EA eta EB alderdiak aurkitzen dira. EArentzat izan da jaitsierarik handiena, eta atzetik jarraitu diote PPK eta EBk.

Herri nagusien azterketa

Villabonan, Ibarra eta Tolosan ere EAJ izan da alderdirik bozkatuena. Ibarra, esaterako, EAJk 657 bozka jaso ditu. Bigarren indarra D3M izan da, 447 bozkekin. Baina oso gertutik jarraitu dio PSE-EEk (401).

Villabonan, berriz, 888 bozka izan dira EAJrentzat. Bigarren indarra D3M izan da (628). Aipatze-koa da Aralarren iguera, 275 bozkekin. Tolosan ere EAJ izan da indartsuena, baina nabarmen jaitsi da, 990 bozka galduz. Bigarren indarra bezala jarraitzen du D3M, baina honek ere 945 bozka galduz.



HB-EH: 1998 eta 2001ean EH aurkeztu zen. PSE-EE: 1980, 1984, 1986 eta 1990ean EE bere kaxa aurkeztu zen. PP: 1986ra arte AP.



» TOLOSA, GUNEA

	EAJ	PSE-EE	D3M	EA	PP	Aralar	EB	Besteak	Abs.
Alde Zaharra eta Belate	687	338	382	94	103	219	64	38	42,9
Landa auzoak (San Esteban, Olarrain, Urkizu, Montezkue, Aldaba eta Bedaio)	223	45	99	37	25	59	10	2	44,01
Erdialdea	1.405	418	347	171	286	291	83	57	30,21
Berazubi, Iurre Iurreamendi	392	200	138	57	42	121	33	22	41,43
Amarotz eta Usabal	226	130	128	27	24	84	20	7	46,12
Izaskun eta ingurua	384	139	151	43	69	127	22	24	39,23
Arramele eta Santa Luzia	256	139	118	37	28	101	27	19	41,63

» IBARRA, GUNEA

	EAJ	PSE-EE	D3M	EA	PP	Aralar	EB	Besteak	Abs.
Euskal Herria (bakoitiak), Gaiarre, Guridi eta Argindegi	258	180	189	34	40	85	13	15	42,59
Ibaiaren ezkerrekoa: Azkue, plaza, San Inazio, Zaldune, Apatta-Erreka	210	139	166	34	38	72	23	15	42,06
Ibaiaren eskuinekoa: Euskal Herria (bakoitiak), Uzturre, Idoiaga, Ibai-Gain, Bekobide	189	82	92	40	20	57	13	12	42,08

» VILLABONA, GUNEA

	EAJ	PSE-EE	D3M	EA	PP	Aralar	EB	Besteak	Abs.
Arroa, Errota, Legarreta, Nagusia, Berria (bakoitiak), Santiago	335	146	262	50	69	92	16	28	41,43
Larrea, Etxeondo, Oriamendi	257	211	169	25	42	75	23	22	41,01
Amasa, Agaraitz, Otelarre, Otsabi, Altzin, Ernio-bea, Berria (bakoitiak), Txermin	296	452	628	102	150	275	60	27	42,49

» ZIZURKIL, GUNEA

	EAJ	PSE-EE	D3M	EA	PP	Aralar	EB	Besteak	Abs.
Asteasu eta Adunako errepideetatik gora (Zizurkil goia)	280	109	251	32	28	71	21	9	39,86
Errepideetatik behera (Elbarrena)	162	158	49	21	31	40	12	14	42,77

Legebiltzarkideak

Eskualdeko legebiltzarkide bat izango da Gasteizen



Bakartxo Tejeria

EAJ

■ **Fitxa.**

Billabonatarra. 38 urte.

■ **Ikasketak.**

Zuzenbidean lizentziatua.

■ **Beste datuak.**

Villabonako alkatea izan zen eta zingotzia da bertan gaur egun, eta azken lau legebiltzarkide izan da.

D3M baliogabetu ez balute



Juan Manuel Erasun

D3M

■ **Fitxa.**

Zizurkildarra, (1963).

■ **Ogibidea.**

Aizkolari eta segalari profesional ohia.

■ **Beste datuak.**

Zizurkilgo alkatea izan zen.



EAJk irabazi ditu bozak, 30 legebiltzarkiderek

ERREDAKZIOA

Bozen %100 zenbatuta, Eusko Alderdi Jeltzaleak irabazi ditu Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak, eta gau osoan hiru-lau diputatuko alde kentzen dio PSE-EE bi-garrenari. Parte-hartzea %65ekoa

izan da. Boto baliogabeei dagokienez, %8,8 izan dira, 100.227 boto.

Aralarrek gora egin du nabarmen, eserleku bat izatetik lau izatera. PP, EB eta EA jaitسي egin dira, eta UPyD lehen aldiz egongo da


Legebiltzarrean. Horiek hala, PSE-EEk, PPk eta UPyDk gehiengo izango lukete Legebiltzarrean, 38 eserleku.

Demokrazia 3.000.000 (D3M) hautesle plataformaren eta Askatasuna alderdi politikoaren ze-

rrendak baliogabe utzi zituen Espainiako Auzitegi Konstituzionalak, eta Baltasar Garzon Espainiako Auzitegi Nazionaleko epaileak haien jarduerak eten zituen.

Boto baliogabeei dagokienez,

guztiak ez dagozkio D3Mri. Oraindik zehaztu egin beharko dira boto horien ezaugarria. 2005ean 4.035 boto baliogabe egon ziren (%0,3), baina ezker abertzaleko alderdi batek (EHAK) hauteskundeetan lehiatzerik izan zuen.





Villabonako ezker abertzaleak agerraldia egin zuten atzo goizean Manex Castrori elkartzasuna adierazteko. N. LATABURU

Manex Castro atxilotu du Ertzaintzak «ETArekin harremana» duelakoan

Villabona » Espainiako Auzitegi Nazionalarekin koordinatutako operazioa izan da; ezker abertzaleak atxilotuta salatu du.

NOELIA LATABURU

Herenegun gauean Manex Castro gazte billabonatarra atxilotu zuen Ertzaintzak, «ETArekin harremana» duelakoan. Atxiloteketa goizko 03:00etan egin zuten, 24 urteko gaztea Villabonako taberna batean zegoela. Operazioa Espainiako Auzitegi Nazionalarekin koordinatua izan da eta oraingoz gazteak Ertzaintzaren esku jarraitzen du Madrilen.

Amnistia Aldeko Mugimenduen informatu zuenez, bortizkeria erabiliz sartu ziren tabernara, kanpoko kristalak apurtu ondoren. Barruan Manex Castro zegoen beste lagunekin batera eta «pistolekin apuntatuz Manex hartu eta minutu eta erdian eraman zuten».

Lehenik Hernanin billabonatarren familiak duen etxeko atea bota eta miaketa burutu zuten; ondoren bere Villabonako etxea ere txakurrekin miatu zuten hiru orduduz. Azken miaketa honetan Cas-

tro bera present egon zen. Ertzaintzak iturrien arabera, Hernanin lehergailuak egiteko materiala aurkitu zuten, «ETAk erabiltzen duena».

Hain zuzen, polizia dio pasa den urtarrilaren 16an Hernanin ustez Ertzaintzaren aurka ETAk egindako atentatu saioarekin zerkusia duela 24 urteko gazteak. ETAk orduan Santa Barbara auzoan telebista hedagailuaren aurka bomba leherrarazi zuen eta hanturkuan beste bi lehergailu jarri zituen -ez ziren lehertu-. Polizia iturriekin esan zuten Ertzaintzaren aurka jarritako bomba-tranpak zirela.

Polizia autonomikoa Manex Castro zaintzen ari zen azkenaldian eta, «beste atentaturen bat egin zezakeelakoan», atzeman egin zuten herenegun.

Presentzia polizial handia Villabonan

Manex Castroren atxilotetaren harira, Villabonako ezker abertzaleak agerraldia deitu zuten eguerdi partean elizaren ondoko plazan. Baina goiz-goizetik presentzia poliziala nabarmena izan zen Villabonako zonalde honetan. Dozenaka ertzainek plaza eta honen inguruak hartu zituzten. Hori dela eta,



Presentzia poliziala nabarmena izan zen herriko kaleetan. N. LATABURU

azkenean Kultur Etxean egin behar izan zuten agerraldia.

Bertan, «Manex askatzeko» eskatu zuten ezker abertzaleak. Ertzaintzen presentziaren harira, berri, «Villabonatik buelta bat ematea nahikoa da demokraziarik ez dagoela agerian uzteko», azaldu zuten eta «demokraziaren izenean egin diren sarraski bat gehiago ikusteko moduan izan gara», esan zuten. «Ertzaintza hau ez da herriarena. Euskal herritarrak atxilotu, torturatu eta erailtzen dituenak posible al du herri zaina izan?», gaineratu zuten.

Dei bereziak

Ezker abertzaleak agerraldia baliatu zuten deialdi berezia zabaltzeko. Batetik, «D3M bozkatzera joateko» eskatu zuten, «surrezko bo-

toa delako, guztion artean Manexen askatasuna eskatzeko». Bestetik, «herri haserre erakustera» deitu zuten, «Manexen askatasuna eskatzeko eta beste behin borroka bitartez bide errepresiboak antzukuak direla esateko».

EAJrentzat ere zuzendu zituzten hitz batzuk: «Ibarretzek dio PSEk irabaziz gero erabakiak Madrilen hartuko direla, lotsa gutxiarekin gero. Gaurko operazioa Auzitegi Nazionalak agindu eta norik burutu du ba? Hauek ez dira abertzaleak. Hauek Espainian eroso sentitzeko ahaleginean jarduten dute egunero, mintuero».

Iluntzean manifestazioa egin zuten eta istiluak izan ziren.

Laburrak

Jai Batzordearen lehen bilera izango da ostegunean

ALEGIA » Ostegunean, hilak 5, 18:00etan Alegiako Jai Batzordearen lehenengo bilera izango da, Kultur Etxean. Batzar honen helburua jaien antolaketarekin hasi eta proposamenak jasotzea da. Bileraren honetara herritar guztiak eta herriko kultur eta kirol talde guztiak gonbidatuta daude. Antolatuzaileen hitzetan, «Jai Batzordean oso jende gutxi dago eta jendea bertan parte hartzea» nahi dute.

Zirkulazio zerga ordaintzeko epea ireki da

IKAZTEGIETA » 2009. urteko zirkulazio zergari dagokion errolda onartu da ikaztegiaren, eta honi dagozkion ordainagiriak borondatezko epean ordaintzeko jarri izan dira. Ordaintzeko epea apirilaren 8ra arte dago irekita. Ordainketa banketxeetan nahiz udaletxean egin ahal izango da. Helbideratuta dauden ordainagiriak 2009ko apirilaren 8an kobratuko dira.

Idoia Sanchez ipuinak kontatzen ariko da bihar

ANOETA » Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta, Idoia Sanchez ipuin kontalariaren saioa izango da bihar Anoetan. 18:30ean hasiko da emanaldia eta liburutegian izango da.

Osoko Bilkura izango da etzi, 19:30etik aurrera

TOLOSA » Bihar Udalaren Ohiko Osoko Bilkura izango da 19:30ean, Udaletxeko Batzar Aretoan. Bertan, ondorengo gaiak aztertuko dira. Hasteko, aurreko bilkuretak aktak onartuko dira, eta baita Alkatetzaren dekretuak ere. Ondoren, Tolosako Udal Musika Eskola Euskal Herriko Musika Eskolen Elkartean atxikitzea onartu edo ez eztabaidatuko da. Bilkurako laugarren puntua, Tolosako Hiriko Ordenazio Plan Orokorren testu bateratuaren behin-betiko onespina izango da, eta azkenik, galde-erreguak.

Emakumeen eguneko afarirako txartelak salgai

ALEGIA » Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira hainbat ekintza antolatuta dituzte Alegian. Tartean, hilaren 7an afaria izango da Txintxarri jatetxean. Prezioa 15 eurokoa da, berez 30 balio bazuen ere, Udalak erdia ordainduko baitu. Txartelak gaurtik aurrera salgai daude Kultur Etxean. Errostea epea asteazkenean amaituko da, hilak 4. Menua ondorengo da: urdaiazpiko eta solomo iberikoa, baikilo entsalada epela, espinaka eta ganbekin betetako piperrak, baikailoa plantxan edo entrekota, euskal pastela helatuarekin eta kafea.

Donostia aldeko banaketa enpresa batek ADMINISTRARI-KOMERTZIALA lanpostua bete behar du

Lanpostuaren funtzio nagusia, lan komertzialak egiteaz gain, banaketa koordinatzaileekin elkarlanean kanpainen banaketa antolatzea eta haien jarraipena egitea izango da.

Eskaintzen da:

- Urte amaiera arteko kontratua (luzatezko modukoa).
- Egun osoko lanaldia.

Eskatzen da:

- Administrazio eta merkataritza arloko ezagutzak.
- Bulegotika programen ezagutza, erabiltzaile mailan.
- Izaera dinamikoa eta haren enparatzen erabiltzea.
- Antolaketarako gaitasuna.
- Gida baimena eta autoa izatea.
- Lan komertzialean eskarmentua izatea baloratuko da.

Curriculum vitae zehatza bidali martxoaren 10a baino lehen: gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora edo Jarduna SM (Giza Baliabideak Saila) Martin Ugaldere Kultur Parkean, 20140 Andoain helbidera

Ez ahaztu erreferentzia zehatza ADMINISTRARI-KOMERTZIALA (Erreferentzia: 09-ET-KOM)



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Atzoko finaleko partidako une bat, Tolosako Beotibar pilotalekuan. 450 ikusle izan ziren bertan. I. GARCIA

Elgezabal-Arozena bikoteak irabazi du II. DV Pala Saria

Pilota » Finala oro har orekatua, berdindua joan zen (30-26); hirugarrenen Fernandez-Ruiz de Larramendi gelditu ziren.

NEREA URBIZU

Emakumezkoen II. DV Pala Sari-ko finala eta hirugarrenen eta laugarrenen postuak atzo Beotibarren jokatu zituzten. Bertaratu ziren 450 ikusleek Elgezabal-Arozenaren garaipenaz gozatu zuten: 30-26 irabazi zuten, Muneta-Bordagarayren kontra. Tanto ikusgarriak egin zituzten askotan, baina akatsak ere egin zituzten, batez ere Bordagarayek: «Hori nabaritu zen. Gero, tantoa ez zitzaion ateratzen nahi izanda ere».

Partida orekatua joan zen, «hasieratik berdindua». Gero irabazleak aurreratu ziren zertxobait, baina berriz erdialdean orekatu egin zen.

Orekatzearekin batera, partidak erritmoa galdu zuen: hasieratik bizi-bizi zeuden lau emakumeak, «indartsu hasi ziren». Bukaeran berriz ondo, baina 29-22 joan ziren momentu batean: «Irabazleak ez ziren gai izan tantoa egiteko eta aurkariek bost tanto jarraian egin zituzten». Arozena lizartarrak maila ona eman zuen jokoa: berez, Mendizabalekin osatuko zuten bikotea Elgezabalek, baina belarriko lesioa dela eta, ez du txapelketa jokatu.

70 minutu iraun zuen partidak eta parekatuta joan zen gehiengotan. Dena dela, Bordagarayek ez

du bere maila onena eman, «neke-arengatik».

3. eta 4. postua jokatu zuten aurretik eta hirugarren Fernandez-Ruiz de Larramendi gelditu dira, 30-18 Pierola-Montesen kontra irabazita. «Lehen partida horretan pilotakada ikusgarriagoak ikusi ziren, pilota bera arinagoa, salto handiagokoa zelako gehienbat. Finala jokatu zutenek pilota pisutsuagoa aukeratu zuten eta ez zen hainbeste mugitu».

Su-Berrikoak finaletan

Joan den urtean hasi zen emakumeen arteko pala txapelketa hau eta ia zoko irabazleak Elgezabal-Mendizabal izan ziren. Bi urtetan, Su-Berri elkarteak pala-jokalariek hartu dute parte finalean. Aurten, Fernandezek eta Arozenak.

'Luze'-k hirugarren eginda, zaila izanen du finalera pasatzea

Leitza » Puntuazioak erabakiko du zeinek egingen duen aurrera; Altsasuko bertolarari bozkatuena Silveira izan zen.

ERREDAKZIOA

Miel Mari Elozegi Luzek herenegun hirugarren egin zuen Nafarroako Bertsolari Txapelketan, bigarren finalean. Bere aurretik Xabier Silveira eta Jon Elizetxe gelditu ziren. Silveira zuzenean 346 punturekin finalera pasatu da.

Luzek 299,5 puntu lortu zituen

Altsasun eta aukera gutxi dauka finalera pasatzeko, gutxi gora behera, 307 puntutan baitago aurrera egiteko muga. Beraz, zail izanen du aurten Elizondoko agertokira igotzea leitzarrak, nahiz eta hirugarren finalean oraindik jokatzeko dagoen.

Bertaratu zirenek aukera izan zuten bertso onak entzuteko, baina oro har, Goizuetako finalean baino apalagoa izan zen. Puntuak dira horren erakusle: Jon Elizetxe sailkatu zen bigarren 307,5 punturekin, eta Goizuetako saioan, Eneko Lazkoz izan zen laugarren, puntu bereberekin.

Emakumearen Nazioarteko Egunarekin lotutako ekitaldiak

Villabona » Udalak antolatutako egitarauaren baitan, gaur, kafe-hizketaldian sexualitateaz ariko dira.

ERREDAKZIOA

Villabonako Udalak Emakumearen Nazioarteko Egunarekin lotuta, hainbat ekitaldi antolatu ditu. Gaur, esaterako, 15:00etan Kultur Etxean sexualitateari buruz ariko dira, kafe-hizketaldiarekin batera.

Eti, hilaren 4an, hain zuzen ere, Gurea zine aretoan 19:00etan hasita *Maskulinitasun berriak eta berdintasuna* hitzaldia izango da. Bukatu ondoren, bertaratuko direnrentzat luntx moduko bat emango diete.

Ostiralean Gurean ere, Joserra Fachadoren *Nosotras* antzezlan ikusteko aukera izango da, 4 euroren truke (haurrek eta gaztetxoek bi).

Datorren asteburukoak

Larunbatean, hilaren 7an, 11:00etan Erreboteko plazan bateagarritasunari eta erantzukidetasunari buruzko jardunaldia antolatu dute, «lanen bidezko banaketa baten alde», hain zuzen.

Martxoaren 8an, Erreboteko plazan berriz ere eta 12:00etan elkarretaratzea eta trikopoteoa izango da. Bazkaria eta festa bermatu dituzte, 14:00etan izanda.

Hauteskundeak.

@ TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAKO webgunean atzoko Hauteskundeetako eskualdeko hainbat datu aurki ditzakezu.

www.tolosaldeko HITZA.info

Laburrak

Interneti buruzko ikastaro azkarra, gaur

IRURA » Gaur Internet autobusa egongo da Iruran, interneteko hastapen ikastaroa emateko asmoarekin. Interneteko hastapen ikastaroa izango da eta bi ordu iraungo du. Ikastaro honek ordenagailua ezagutzeko eta erabiltzen ikasteko balio du. Irekia den ikastaro honetan Interneten oinarriko eza-gutza eta bere erabilgarritasun nagusiak jorratuko dituzte. San Migel plazan izango da, esan bezala gaur, 10:30etik 12:30era bitartean, edo bestela arratsaldean, 17:00etik 19:00etara. Toki kopurua mugatua izango da eta horretaz gain, parte-hartzaile guztiek oparia jasoko dute.

Peruko, Argentinako eta Mozambikoko argazkiak

ALEGIA » Alegiako jubilatuen tabernan, hilabete osoan zehar Ainhoa Arregik, Amaia Aramendik eta Arrate Iturbek egindako argazkien erakusketak izango da. *Iparretik hegora hankaz gora* izena jarri diote 18 argazki osatutako bilduma honi eta Argentinako, Peruko eta Mozambikoko irudiak ikus daitezke bertan. Lurralde hauetako jendea, ohiturak eta paisaiak biltzen dituzte argazkiak. Asteartetik igandera bitarte daude ikusgai, tabernaren ordutegiaren baitan.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Garbiketak.** Bigi garbitasunak. Alfonbrak, etxebizitzak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe. Irene: 695 708 271 edo 638 944 604 telefono zenbakira.



Jende asko bildu du kantuak

TOLOSA » Herenegun, hilabeteko azken ostirala izatearekin, *Tolosa Kantuan* ekimena izan zen eta Tolosako Alde Zaharrera joan zirenek aukera izan zuten betiko euskal kantak entzuteko. Larunbatean, zehazki, jende

asko hurbildu zen kantari ateratzen direnen ingurura eta askok hartu zuten parte. Hurrengo zita, beraz, martxoaren 28an izango da eta euskal kanta herrikoiak berreskuratzeko asmoari helduko diote. ASIER IMAZ



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Alegia.** Emakumeen afaria izango da Txintxarri jatetxean, martxoaren 7an. Prezioa: 15 euro. Tikitak salgai martxoaren 4ra arte Kultur Etxean.

■ **Irura.** Interneteko hastapen ikastaroa, gaur, San Miguel plazan, 10:30etik 12:30era eta 17:00etatik 19:00etara. Toki-kopuru mugatua izango da, eta parte-hartzaile guztiak oparia jasoko dute.

■ **Tolosa.** Haur bereziekin lan egiteko ipuin tailerra *El cuento y la inclusión* izenburuan, Ana Torrellese eman, martxoaren 6an eta 7an. Izen-ematea, Kultur Etxean, 60 eurotan. Informazioa *asvinenea@gmail.com* edo 647 201401 telefono zenbakian. Antolatzailea: Asvinenea.

Erakusketak

■ **Alegia.** Asteartetik igandera bitarte, jubilatuen taberna hiru herrialdetako argazkiak daude ikusgai: Argentina, Kuba... Gehienbat bertako jendearen argazkiak daude, guztira 18.

■ **Hernialde.** Argazki kameren erakusketa. Zaharrak, bitxiak... guztiak ikusgarriak. Hainbat tainu eta itxurako kamerak.

Zinema

■ **Tolosa.** Leidor aretoa (ikuslearen eguna): 20:30ean, *La clase* filma.

■ **Villabona.** Gurea aretoa (ikuslearen eguna): 21:30ean, *Siete almas* filma.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.

■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



Egoilarrak gustura aritu ziren txarangakoen eta konpartsakoen emanaldiekin. Txalo handiak eskani zizkieten. I.T.

Inauterien ondorengo igandean, Piñata Igandean, urteroko moduan Inauteri giroa izaten da lurreamendi egoitzan, Poca-Tripa txarangaren eta Txilaba Elkartearen konpartsakoen eskutik.

lurreamendi ere Inauterietan

IÑIGO TERRADILLOS

Bukatu dira aurtengo Inauteriak, eta berez, iragan asteartea, edo Asteartita, azken eguna izan zen arren, lurreamendi Zaharren Egoitzakoentzat atzokoa ere Inauteri eguna izan zen. Izan ere, urteroko moduan, Inauterien ondorengo igandea, Piñata Igandea izaki, Inauteri doinuek eta dantzek hartzen dute egoitza.

Poca-Tripa txarangakoak arduratu ziren atzokoan ere musikajartzeaz, eta Txilaba Elkartearen konpartsakoak dantzak eskaini zizkieten egoiliarrei. Hauek gustura hartu zituzten, bertatik bertara Inauteriaz apur bat gozatzeko aukera baita eurentzat. Ondoren, barrun jatea egin zuten guztiak batera.



Poca-Tripa txarangakoek euren doinuak zabaldu zituzten egoitzan. I.T.

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauek batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak